

**Jaialdia
DKLUBA**



**memoria
2019**



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



Dkluba programak **Donostiako auzoetako musika-eskaintza** dinamizatzeko helburua du, **bertako taldeen parte-hartzea** sustatuz bereziki. Helburua hiria erreferente bihurtzea da, non talde berriak aurkitu, artista ospetsuak hartu eta non bertako talentua modu naturalean hazi ahalko baita. **Lankidetza** du oinarri (administrazio publikoaren eta erakunde pribatuaren artean), musika-**ekitaldi komertzialak ez bezalako ekitaldi alternatiboak** programatzeko eta **bertakoa aintzat hartzeko** xedez (hala musika-taldeen dagokienez nola kolektibo, klub, sustatzaile eta elkarteetan lanari dagokionez).

2019an, **20.878 ikus-entzule** izan ziren 30 kontzertutan, zeinak tabernetan, aire librean eta kultur etxeetako agertokietan egin baitziren, batez ere **Intxaurrondo Kultur Etxeko** aretoan. Kultur Etxea gero eta erreferentzia sendoagoa da bere aretoari, edukierari eta erabiltzeko erosotasunari esker, jende asko erakartzeko gaitasuna duten taldeek eskaintza osatzeko bidea ematen baitute. 2019ko adibide gisa, **Gatibuk** (hirutan), **León Benaventek** eta **Nikki Hillek sarrerak agortu zituzten** aldezturik salmentetan. Orobat, nabarmentzekoa da **8. Revlution Jamrock Reggae Festival**ek utzitako aho-zapore gozoa. Lehen aldiz antolatu zen gure Kultur Etxean, beste jaialdi batzuen bidea hartuta: **Urban Femme**, **IX. Musigakela Weekend** edo **XIV. Donostikluba festibala**. **Donostikluba festibala**.

DKlubak, musika-eskaintza emateaz gainera, balioa duten beste proposamen batzuk sortzen ditu,

hala nola **sorkuntza-egonaldiak**, 2019an **Willis Drummond** edo **Nina Coyote y Chico Tornadok** gauzatuak, **Intxaurrondo K. E.**an horiek ere. Taldeok beren azken diskoak aurkezteko kontzertuan prestatzeko erabili zituzten egonaldiok. Programa horrek badu ezagutza transmititzeari adarra ere: **Lauaizeta ikastolak** topaketak eta lantegiak egin zituen bi taldeekin.

DKlubako aire libreko agertokiei dagokienez, udako hitzorduen artean arrastoa utzi duenetako bat **Musikaren eguna** da, Fnac-ekin batera antolatua. Ekainaren 22an, Loiola kalea musikaz bete zen eguerditik arratsera arte, zazpi kontzertu izan baitziren. Nabarmenenak, talde hauenak: **Noa & The Helldrinkers**, **Joseba Irazoki eta lagunak** y **Koko Jeans & The Tonic**. Jarduera horrek gero eta jarraitzaile gehiago ditu urtetik urtera.

Bestalde, **Musikagela Festek** Easo plazan bigarren edizioa egin zuen (lehen Loiolako Erriberako Oroimenaren lorategian egin zen). Kokaleku berriari esker, jende asko hurbildu zen bertako **zazpi taldeen eta bi bakarlariren** kontzertuetara, Musikagela zerbitzutik denak ere, bai eta **The Sick Boys** Bartzelonako bandarenera ere. Jardunaldiak ezin modu hobean eman zion amaia ikasturteari.

Baina, Dklubak aire libreko musika-agendaren alde egindako apustuen artean, **Glad is the Day** izan da, ezbairik gabe, urteko izarra. Ekinbidea 2016ko Hiriburutzatik dator, eta sendotuz jarraitzen du: **10.000**

lagun izan ziren abuztuaren 4ko kontzertuetan. Dinamikak laguntzaile bat gehiago izan zuen, **Keler** (besteak, **Le Bukovski**, **Dabadaba** eta **Kutxa Kultur** dira). Bosgarren edizio honetan, 16 talde eta Dj izan ziren, azokatxoa, haurrentzako lantegiak eta janari-eta edari-postuak. Familiaek eta adin guztietako jendeak hartu zuten gozatua egun eder eta jai-girokoan, **Potato** eta **The Limboos** taldeen musikaz lagunduta, edota **Bellaca** eta **Khaled**en saioez.

Ezbairik gabe, Cristina Enea parkeko hitzordua ondo finkatuta dago Donostiako udako egutegian.



Glad is the day

